

Transmedia eta mobilizazio sozialak: Askegunearen komunikazio-estrategia

Libe Mimenza Castillo, Edorta Arana Arrieta eta Bea Narbaiza Amillategi
UPV/EHUren Unibertsitatea-Gizartea Ikerketa Proiektua, 2011-2013: US11/16
«Transmedia edukien sorrera, ekoizpena eta erabilera»

Aldaketa-garaia bizi du komunikazioak iraultza teknologikoaren testuinguruan. Eraldaketa horien eragin-esparruak mugimendu sozialak ere barneratu ditu eta, ondorioz, transmedia-mobilizazio sozial izendatu den fenomenoak gurera ere iritsi da. Horrela, mugimendu sozialek birmoldatze-aro hau ustiatuta, besteak beste, beren mobilizazio-gaitasuna zein eragin-esparrua sendotzeko aukera daukate; izan ere, hedatze komunikatiboa bihur baitaiteke mobilizazioaren akuilu.

Horren adierazle, 2013ko apirilean Donostian abiatu zen desobedientzia zibileko Askegunea mugimenduaren komunikazio-estrategiatik abiatuta, haren transmedia-izaera aztertu dugu ikerketa honetan.

GAKO-HITZAK: Transmedia · Mobilizazio sozialak · Askegunea · Komunikazioa.

Transmedia and social mobilization: Askegunea's communication strategy

Communication is experiencing a time of change in the context of the technological revolution. The influence of these changes have also reached social movements and, consequently, has come down to us the phenomena called transmedia social mobilization. In this era of remodeling social movements, they have, among others, the opportunity to strengthen their mobilization capacity and sphere of influence. In fact, expansion of communication can become a catalyst for mobilization.

In that context, we have analyzed the transmedia nature of the communication strategy launched in San Sebastian, in April 2013, by Askegunea social disobedience movement.

KEY WORDS: Transmedia · Social mobilization · Askegunea · Communication.

Jasotze data: 2015-08-31 *Onartze data:* 2015-10-19

1. Sarrera eta gaiaren justifikazioa

Gaur egun, digitalizazioak eta konbergentzia mediatikoak baldintzatutako egoera bizi du komunikazioak; horregatik, eskema berriak behar ditugu ohiko sistema ordezkatzeko. Erabat aldatu dira orain arteko eginkizunak, ekoizpen-bitartekoak, hartu-emanetarako beharrezkoak diren agenteen arteko harremanak, finantzaketa-bideak edo publikoaren jarrerak.

Gaur, teknologiaren hedapen zein eskuragarritasunak bat egin du jendartearen portaera aktiboarekin. Ondorioz, gero eta ugariagoak dira erabiltzaile *prosumer*-ak kultura parte-hartzaileak baldintzatutako aro honetan. Orain arte hartzaile soil izandako agentearen rol-aldaketa egungo eszenaren baldintzatzaile bilakatu da. Horri erantzuteko, komunikazio-arloko profesionalek albo batera utzi beharko dituzte izaera isolatua daukaten egitasmoak; besteak beste, bestelako proiektu zabalagoak sortzearen alde egiteko: plataforma anitzez osatutako kalitatezko edukia eskaintzeko, produkzio ondorengo hedapena ere landuko duen edukia sortzeko, produktuak parte-hartzea aintzat hartuta diseinatzeko edota, edukia garatzerakoan, igorle zein hartzaileen arteko norabide biko harreman hori ahalik eta egokien ustiatzeko.

Testuinguru horretan, gaur egungo marko mediatikoaren ezaugarrietara eta gaurko erabiltzaileen portaeretara egokitutako komunikazio-ereduak garatu behar dira. Medio anitzetarako sortzetik medio anitzez sortzera igaro beharra dago; hots, multimediatik transmediarako jauzia egin.

Tankera horretako edozein ekimen sortzeko, ezinbestean, kode berriak ikuspegi zabal eta osagarri ekin behar dio sorkuntzari. Ikuspuntu hori gauzatzerakoan, garrantzitsua da elkarlanerako sareak garatzea edota edukiak diseinu orokor integratuz sortzea; gogoan hartuta etorkizuneko erronka nagusia osagai guztien bat-egitea izango dela. Azken xedea lortze aldera, bateratzea gauzatzeko aukerak ezagutu eta asmatzen hastea izango da lehenengo urratsa. Horixe da, hain zuen, transmedia kontzeptuak dakarkigun ikuspegia.

Datozen lerrootan, transmediaren kontzeptualizazioan zein definizioan murgilduko gara. Lehenik eta behin, aztertuko dugu ekimen errealetara nola ekarri fikziozko munduan egindako ohiko aplikazioa; bai komunikazio molde berri honen eta gizarte-mugimenduen arteko loturak ezartzeko, bai transmedia-mobilizazio sozialen teorian sakontzeko. Horretarako, ardatz hartuko dugu 2013ko apirilean Donostian garatutako desobedientzia zibileko Askegunea ekimena.

2. Transmedia eta mobilizazio sozialak: teoriak

Lehen hurbilketan, hizpide dugun kontzeptuaren hastapenak eta ezaugarriak zehaztuko ditugu. Ondoren, Transmedia Kazetaritza kontzeptura hurbildu beharra dago, fikziozko ikus-entzunezko industriari lotutako formulazio horietatik errealitate faktualera jauzi egiteko. Jarraian, gaur egungo sare-gizartea deskribatuko dugu, besteak beste, mugimendu sozial garaikideak ulertzeko aukera eskaintzen duelako.

Halaber, teoriei dagokien atal honekin amaitzeko, mobilizazio sozialekiko harremana azalduko dugu.

Edonola ere, hona esku artean ditugun teoretara hurbiltzeko azalpena: multimediak hainbat medioz sortutako edukia eskaintzen du, hedabide ezberdinetan argitaratzeko moduko emaitza. Crossmediak, aldiz, askotariko mintzaira edo gailuetara egokitutako kontakizunak ekoizten ditu; istorioaren egokitzapenen bidez, hain zuzen ere. Transmediak, berriz, sortze-prozesutik osatzen du narrazioa makina bat euskarri edota gailuren bidez, ondorioz, bere atal bakoitza osotasun banaezinaren zati independente eta autonomo bihurtzeko; horrela soilik hartuko baita aintzat erabiltzaileen parte-hartzea kontakizuna hedatzeko orduan. Halaber, multimedia- zein crossmedia-esperientziak, jada, ez dira nahikoak, ez ikuspegi osoa, ez integratua daukaten erabiltzaile aktiboentzat. Ezagutza digitala gora doan heinean, unibertso digitalean hezitako belaunaldiak sortzen gabiltza, hortaz, erabiltzaileen beharrak aldatzen ari dira; are gehiago, agertoki mediatikoa eraldatu dugu. Eskema berri batean murgiltzen ari gara, beraz, paradigma horren beharrei erantzuteko ikuspegi oso eta integratuz ekiteko beharra dute komunikazio-esperientziek ere.

2.1. Transmedia

Kontzeptua, lehen aldiz, Marsha Kinder akademikoak idatzi zuen; *Transmedia Intertextuality*, hain zuzen ere. 1991. urtean, hitza argitaratu zuenean, telebista, film eta jostailuen arteko intertestualitatea aztertu zuen; era horretan ondorioztatu zuen, 1940ko hamarkadan ere, bazeudela abian plataforma bat baino gehiago erabiltzeko praktikak eta, azken urteetan, areagotu zein estandarizatzeko bidea hartu zutela. Intertestualitatea, hein handi batean, salgaian oinarritutako telebista-saioetan ageri zela deskribatu zuen. Saltzea helburu zuten programa horiek areagotzeko arrazoitzat, amerikar hedabideen 80ko hamarkadako desregularizazioa aipatzen du.

Testuen arteko harremana, batez ere, haurrentzako *The Muppets* eta gazteentzako *Teenage Mutant Ninja Turtles* saioetan nola gauzatzen zen aztertu zuen. Haren aburuz, adin-tarte hori baitzen, bete-betean, intertestualitatearen eragin handiena jasotzen zebilena. Larunbat goizetan, telebistan, umeentzat eskaintzen ziren saioak aztertu ondoren, honakoa ondorioztatu zuen:

Aurkitu nuena transmedia-intertestualitatearen eredu nahiko sendoa izan zen; horrek, ikus-entzule gazteak honela kokatzen zituen: (1) film, telebista, komiki, iragarki, bideo-joko eta jostailuek zeharkatzen dituzten genero popularrak eta horien ikonografiak aztertzeko, bereizteko eta bateratzeko moduan; (2) telebista eta zinearen aurreko diskurtsoen arteko ezberdintasun formalak identifikatzeko moduan, horiek beretzat hartu, horien parodia egin, eta azken portuan, irudiak sortzeko modu nagusi bezala ordezkatzeko; (3) subjektu izateko bi modu basikoei erantzuteko eta horien artean bereizteko moduan, hain zuzen, telebistarekiko eta zinemarekiko; horrela, zuzeneko interpelazioa jasotzen du publikoak fikziozko pertsonaien eskutik edo pantailaz kanpoko ahotsetatik, era horretan, pertsonaiekiko zein fikziozko espazioekiko identifikazioa lortzeko, gehienetan, begiradaren ardatzaren bidez edota edizio-tankera klasikoen bidez; (4) zaharkitzapenaren arriskuak hautemateko

moduan (pertsonea, programa, genero eta hedabideentzako mehatxu potentzial bezala) eta sistema intertestual handiago batekiko bateragarritasunaren balioak ulertzeko moduan, horrela, gatazkan zeuden kategoriak kendu baitaitezke, hesi murriztaileak ezabatuta (Kinder, 1991: 47').

Haurrentzako edukiak hainbat plataformatan zabaltzen zirela frogatu zuen eta, transmedia-intertestualitate horri esker, aurreikustera iritsi zen ezabatu egingo zirela ordura arteko mugak.

Gaur egun, kontakizun oro hainbat kanal mediatikotan zehar hedatzen da; are gehiago, jario hori, jada, saihetsezina da. Gainera, erabiltzaile digitalek ere murgiltze-maila handiagoko esperientziak eskatzen dituzte: iraultza teknologikoaren testuinguruan edukia ez baitute era isolatuan sortzen, ezta kontsumitzen ere; aitzitik, testu bakoitza osotasunaren parte eta osagarri da haientzat. Hartara, agertoki (berri) honetan, tipologikoki eduki berriak sortzen ditugu, eta, ondorioz, horiekiko erabiltzaileen jarrera zein portaerak azaleratzen dira.

Halaber, zeharo aldatuta egon arren ikus-entzunezko sorkuntzaren ohiko rolak (eragileen arteko harremanak, erabiltzaileak edo produktuak), testuinguru honetan, industria mediatikoek ez dute transmedia-esperientziak sortzeko elkarlanerako urrats sendorik eman; kontrara, konpetentzia oldarkorrean dihardute. Izan ere, hor daude sortzaileen talentua eta erabiltzaileen beharra; baina horiei erantzuteko industrien ikuspegi komuna falta da. Hezurdura hierarkikoak jada ez du balio; horregatik, ideia horri helduta, kontzeptua lehen aldiz jendarteratu zuenean, eredu berri bat behar dela zioen Jenkinsek 2003an.

Hainbat medioz osatutako ingurune honetan, eduki bakarrean oinarritutako multimedia-aldakerak sortzeko praktika orokortu da, crossmedia izendatutako praktika. Jarrera hori albo batera utzi eta eginkizun integratuari bidea emateko beharraz mintzatu zen Jenkins. Iker-lerro horri helduta garatutako azterketaren emaitza da honako definizio teoriko zabalduena:

Transmedia-kontakizun bat askotariko plataforma mediatikoen bidez garatzen da, eta horietako bakoitzean sortutako edukiak ekarpen berezitua egiten dio osotasunari. Hortaz, medio bakoitzak bere ezaugarri dagokiena egiten du [...] eta kontakizunerako sarrera-puntu bakoitza independentea da [...] Medio ezberdinetan zeharreko ibilbideak esperientzia sakona eragiten du eta, era berean, gehiago kontsumitzeko gogo pizten du (Jenkins, 2008: 101).

Beraz, transmediak mintzo garenean ez gara ari euskarri batetik besterako egokitzapenez; aitzitik, hainbat medio eta istorioz osatuta garatutako narratziomundu bat xede, bestelako estrategia batez dihardugu.

Era berean, galaxia semantikoa osatzen dute honako hitz hauek: *crossmedia*, *multiple platforms*, *hybrid media*, *intertextual commodity*, *transmedial worlds*, *transmedial interactions*, *multimodality* edota *intermedia*. Nahiz eta adiera bakoitzak gertaera berdinen alderdi zehatz bat izan abiapuntu, guztiek egitate bera

1. Liburuaren argitaratzailea den Kaliforniako Unibertsitatearen online argitalpena erabili da. Aipuren orrialdea, liburuaren bigarren kapituluko «Saturday CBS Fun» ataleko 47.a da. <<http://ark.cdlib.org/ark:/13030/ft4h4nb22p/>> (azken kontsulta-eguna: 2015/03/21).

izendatzea dute helburu orokor: hainbat mintzaira, medio edo plataformaz osatutako kontakizun oso baten ekoizpen-prozesu bat (Scolari, 2013: 25).

Autore horrek orain arte formulatutako definizioak aztertu eta alderatu ditu, ondoren, bere definizioa osatzeko; zera dio: «Istoria hainbat medio zein plataformatan zehar hedatzen denean sortzen dira era horretako kontakizunak; hedatze-prozesuan, beharrezkoa da erabiltzaile multzo baten rol aktiboa» (Scolari, 2013: 46). Jardute horien deskribapena ere badakar:

Kontakizunek aurreplanifikazio baten emaitza izan behar dute. Sortzaile edo ekoizleak transmedia-ikuspegi batekin pentsatzen hasten diren unean, orduantxe, crossmedia-hedapenaren planifikazioa azken orduan gehitutako balio erantsi bat baino gehiago izango da; berau, oinarritzko behar bat bihurtuko baita (Scolari, 2013: 79).

Beraz, bi ardatz ditu: alde batetik, hainbat bitarteko zein plataformaren bidez hedatutako kontakizuna da; bestetik, audientziaren parte-hartze aktiboa du ezaugarri. Horri gehitu behar zaio proiektuaren alde guztien autonomia, zeren, transmedia-kontakizunetan, euskarri bakoitzeko istorioak osotasun bat eskaintzen baitu. Izan ere, gero eta medio gehiagoz osatutako bizipenean murgilduz gero, orduan eta gozamen, lotura emozional edo inplikazio handiagoa lortuko du erabiltzaileak. Praktika hori arrakastatsua izateko, bitarteko bakoitzeko edukiaren errealizazioak independentea edota autonomoa izan behar du; horrela, hedabide guztien osagarritasuna alde isolatuen gehikuntza baino zerbait gehiago izan dadin, hots, kontakizun-unibertso propio bat osa dezan (Pratten, 2011).

Integraziorako bidean, kontzeptualizazio horrek bi ardatz dakartzkigu: hainbat medioren, euskarriren, kanalen edo gailuren arteko edukien integrazioa, alde batetik. Eta, bestetik, erabiltzailearen parte-hartzean oinarritutako bizipen sakonak, partaidetzaren aktibotasunaren araberrako sakontasun-maila ezberdineko esperientziak eskaintzeko.

2.2. Transmedia Kazetaritza

Orain arte ikusitakoaren arabera, handia izan behar du kontakizunen eremu narratiboak, erabiltzaileei arakatzeko aukera desberdinak ahalbidetzeko adinakoa. Horixe da fikziozko ikus-entzunezkoen lotutako azalpena; gaur egungo industrian, bereziki, telesailen, filmetan eta bideo-jokoen mintzo gara. Jarraian, egin dezagun jauzi gertakizunetara zuzenean; bide batez, Transmedia Kazetaritza aztertuko.

Gaurko testuinguru mediatiko hiperkonektatuan, ezinbestekotzat hartzen da kazetaritza multiplataforma. Scolari-ri irakur diezaiokigun (2013: 187), «Jenkins-en hitzetan, tankera horretako kazetaritzak itxura asko izan ditzake: irakurleen adimen kolektiboaz baliatutako proiektuak, newsgaming-a, murgiltze-kazetaritza edota kazetari herritarrekin elkarlanak». Kevin T. Moloney-ren *Porting transmedia storytelling to journalism* (2011) doktore-tesian, gehienbat, ikuspuntu horrekin egindako diseinua azpimarratzen da; hots, aurretiko diseinuaren beharra. Aurreplanifikazio hori garatu ahal izateko, «kontzeptuen miaketa da jarduera honen

ezagutza eta abileziak geureganatzeko oinarria» (Dena, 2009: 324). Behin zertaz ari garen ulertuta, profesionalek hausnartu beharko dute hedabide bakoitzaren abantailak nola ustiatu; guztiak lantzen dabilzan gaiaren alde jartzeko. Bestelako kazetagitza moldeekin alderatzeko orduan, Denis Portok eta Jesus Floresek ere gogoeta bertsua dakarte:

Jendarte postmodernoko komunikazio-aukerak baliatzea ahalbidetzen du transmedia-kontakizunak. Horrela, komunikazioaren esparruan rol garrantzitsua hartzen du mugikortasunak edota egituren arteko jauziak, hau da, interakzioak. Esaterako, mezuaren interpretazio parte-hartzailerako hartzailera erakartzeko eta bereganatzeko (2012: 82).

Nola egin jauzi eremu dokumentalera? Nahiz eta hamar urte hauetako kontzeptualizazio teorikoa fikziozko kontakizunei estuki lotua egon izan den, beste genero edota esparruetako erabilerak ere badira protagonista; izan ere, transmediaren ezaugarriak berdin-berdin egokitu baitaitezke fikziozkoak ez diren esparruetan ere, esaterako, kazetaritzan.

Kazetaritzan, istorioak hainbat medio zein plataformaren bidez kontatzen dira eta egungo erabiltzaile prosumitzaileek parte hartzen dute kontakizunaren osaketan. Hortaz, gaurko ingurune mediatiko osagarrian, erabiltzaileek informazio-iturri ezberdin asko darabiltzate berriak jaso edo emateko, beraz, leku zein formatu esanguratsuetan eta garrantzitsuetan egon beharra dute hedabideek (Scolari, 2013: 182). Kazetaritzaren eginkizuna ahal den ondoen informatzea baldin bada, hedabideek ezinbestean antolatu behar dute kontakizuna bai agertoki horren ezaugarrietara, bai erabiltzaileen portaerara. Pilar Iralak narratiba berrien inguruan egindako azterketatik ondorengo Transmedia Kazetaritzaren definizioa adierazi du:

Transmedia-kontakizunak komunikazio-formula multimediakoak eta hipertestualak dira. Oinarria, eduki baten edo kazetaritza-pieza baten hedapena da, hain zuzen, hainbat medioaren bidezko hedapena, eta bakoitzean, bere adierazpen-ezaugarriak errespetatzen dira (irudia, audioa, bideoa). Era berean, irakurlearen/ikuslearen parte-hartzea sustatzen da, behintzat, produktu zehatz baten hedapen-estrategian parte har dezan bere gomendio, iruzkin edo partekatzeen bidez (Irala, 2014: 147).

Dagoeneko, Transmedia Kazetaritzaren ibilbidean badira hainbat kasu-ikerketak; hortaz, baita eredu horretako praktikak ere. Narratiba berriak agertu dira erreportajegintzan. Horien adibide modura, 2012ko abenduan, The New York Times-ek argitaratutako *Snow Fall* lana² aipa daiteke. Kirol-erreportaje horren kazetari arduradunak, John Branch-ek, Pulitzer saria irabazi zuen 2013an. Zertan datza? Hipertestudun kazeta-lan multimedia da eta osagaien edertasun grafikoa zinez zaindua du. Elur-jausi batean harrapatuta geratu ziren hamasei eskiatzaile eta patinatzailearen istorioa kontatzen du. Bertan, besteak beste, honakoak ditu: mapak, audio zatiak, argazkiak, testuak zein gertaerari egokitutako web diseinu landua.

Esparru teorikoan, aldiz, Kevin Moloney-k bere blogeko artikulua batean³ Transmedia Kazetaritzarako manifestu bat argitaratu zuen 2011n:

2. *Snow Fall* (azken kontsulta-eguna: 2015/03/21): <www.nytimes.com/projects/2012/snow-fall/>.

3. Kevin Moloney-ren «Transmedia Journalism in Principle» artikulua (azken kontsulta-eguna: 2015/08/27): <<http://transmediajournalism.org/2011/11/23/transmedia-journalism-in-principle/>>.

Guk, kazetariok, publikoa guregana hel dadin itxaron beharrean, askotariko paisaia mediatiko baten bidez egin behar dugu haienganako bidea. Kazetaritzaren gatibu zen audientziaren egunak amaitu dira, horrenbestez, gure demokraziaren idealen, giza eskubideen, ingurumenaren edo hoberako aldaketa sozialen alde lan egin nahi baldin badugu, publiko zabalago bat aurkitu beharra daukagu.

Lantzen ditugun istorioak nabarmendu eta gailentzeko audientzia ere geureganatu behar dugu. Publiko berrietara iristeko eta horietako norbanako bakoitzak hainbat modutan parte hartzeko aukera galtzen dugu, hain zuzen, medio guztietarako istorio bera proposatzen dugunean. Zergatik ez hedabide ezberdin horiek guztiak erabili eta bakoitzaren abantailak baliatu istorio konplexuak kontatzeko? Eta zergatik ez dugu diseinatzen kontakizun bakar moduan hainbat hedabidetan hedatuko den istorio kohesibo bat? (Moloney, 2011).

Alde batetik, profesionalek aukerez betetako unibertso bat daukate aurrean eta eurek erabaki beharko dute mugarik ezartzeko asmoa duten edo ez; betiere, kazetaritzaren egiteko soziala gogoan hartuta lan eginez gero. Bestalde, lanbideari egin dakizkiokeen ekarpenen artean aipa daitezke informazioaren demokratizazioa, ikerketaren berritzea eta indartzea, irakurlearen ikus-entzute bizipen sakona edota hedapen handia zein azkarra. Halaber, irakurleak informazio osatuagoa jasoko du: «Transmedia Kazetaritzaren bidez ez da soilik publiko zabalagoetara iristen, kontatzen den istorioarekin identifikazio-maila handiagoa eskaintzen da, testuinguru gehiago; horrela, arazoaren inguruko irakurketaz harago, elkarrizketa planteatzen da» (Moloney, 2011: 92).

Horrenbestez, tankera horretako proiektuak sortzeko talde-lana da oinarri. Multimedian trebeak izateaz gain, komunikazio digitalaren ezaugarriak barneratutako langileak eskatuko dira; kazetari alfabetatuak. Era horretan, belaunaldi berriek ez dituzte aintzat hartuko soilik argitalpen- zein hedapen-formatuak; egungo testuinguruan, irakurleak ere gogoan dituztela jardun beharko dute (haientzat sortzen baitzen lehen; orain, berriz, haiekin elkarlanean sortuko da).

2.3. Transmedia eta mobilizazio sozialak

Aurrez, kazetaritzari lotuta egindako azterketa bera aplikatu daiteke kultur sorkuntzan, aisialdian edota mugimendu sozialetan; izan ere, komunikazioa da horien guztien motorra. Gaur, jada, publikoa ez da aurrez fabrikatutako mezuen kontsumitzaile hutsa. Sortu eta mezuei itxura ematen dien jendeaz mintzo gara, orain arte irudikatu gabeko moduetan edukiak elkarrekin banatzen, birplanteatzen edo birmoldatzen dituen publikoaz; hots, prosumer edo prosumitzaileez. Praktika hori komunitateen zein sareen barruan egin ohi dute, horrek, hain zuzen ere, euren esparru geografikotik askoz harago hedatzea ahalbidetzen baitie (Jenkins, Ford, Green, 2013).

Hortaz, bideragarria da transmedia eta mugimendu sozialen arteko loturak ezartzea; horretarako, sare-gizarteaz hitz egin beharra dago. Castells-en hitzetan (2006), elkarri lotutako jendartean, errealtatea osatzen dute informazioa inolako mugarik gabe —ez denbora, ez bolumen— prozesatzeko, biltzeko eta transmititzeko aukeradun eremuek; beraz, egungo jendartea ehunduta baldin badago etengabe, mugimendu sozialak ere sare horretan bizi dira. Horien bidez, ekimen-gune bat gehiago daukate egungo mugimendu sozialek, espazio birtuala.

Testuinguru horretan, beharrezkoa da transmedia-ezaugarriak dituen ikuskera zabal, oso eta osagarriarekin ekitea ekimen sozialei. Teknologia horrenbeste garatu baldin bada, orain osagai berriak baldin baditugu, zergatik ez tresna, joera edota erabiltzaileen portaera horiei probetxua atera herri-mugimenduetan ere?

Gaur, sareko komunikazioaren hazkundeak baliabide berri andana ekarri ditu eta erraztasun asko eman die urteetan beren ahotsa entzunarazteko borrokatutakoei; egun, euren eskura baitituzte ekintzarako aukerak: «80ko hamarkadan bizitako giro soziopolitikoak izan zen hedabide alternatiboen leherrazlea» (Ramirez de la Piscina, 2010: 311). Ondorioz, gurean ere, plataforma berriek aldaketa sozial, kultural, ekonomiko, legal zein politikorako bide berriak sortu dituzte. Horiek «aniztasun eta demokratizaziorako benetako aukerak dira; horiengatik borrokatzea merezi du» (Jenkins, Ford, Green, 2013). Horrenbestez, parte-hartzea da egungo balio esanguratsua, hala dio Roig-ek ere: «Parte-hartzea da kultur produkzio garaikidearen bereizgarri nagusia» (Roig, 2010).

Parte-hartzeari esker, erabiltzaileek edo industria kulturek sortutako edukiek elkarrengan eragiteko aukera berriak dituzte. Gainera, hiru kontzeptu ere aipatu behar dira, besteak beste, esparru komunikatiboan ikaragarritzko garrantzia daukatelako (Jenkins, 2006): konbergentzia mediatikoa, kultura parte-hartzailea eta Pierre Levyk formulatutako adimen kolektiboa. Edukiak jario etengabea hainbat plataforma mediatikotatik hedatzen dira, duela gutxi arte ez bezala. Lehen, elkarrengandik urrunduta ibili den industria mediatikoaren elkarlana ahalbidetzen da konbergentzia mediatikoari esker; era berean, audientziaren migrazioak areagotzea ere badakar. Halaber, kultura parte-hartzaileak hautsi egin du ikus-entzule pasiboaren mitoa; ekoizle-hartzaile rola errotik irauli ditu, gaur-gaurkoz, joan-etorriko norabidean, oraindik ere guztiz barneratu gabeko arauen arabera egokitze. Are gehiago, adimen kolektiboa erabiltzaileen arteko harremanetatik sortzen denez, indar handietako eragile bat bihurtu da gertaerei eta kultur edukiei zentzua emateko orduan.

Botere hori, indibidualki zein kolektiboki, nola gauzatu ikasten gabiltza oraindik ere. Mobilizazio sozialek aukera dute, agertoki honetan, parte-hartzea artikulatzeko, birtuala eta erreala uztartzeko, sakontasun-maila ezberdineko esperientzien bidez inplikazioa lortzeko edo aktibazio soziala gauzatzeko. Beraz, fikziozko transmedia-produkzioak edota kazetaritzak ez ezik, herri-mugimenduek ere balia dezakete ikuskera hori esparru errealetarako erabilerak antolatze. Baina, nola? Kontakizunen dimentsio guztien uztarketaren bidez isolatutako edukiak elkarri lotzeko; osagai guztiak bateratuta sortuko baitira kontakizun oso eta integratuak.

Castells-ek mobilizazio sozialen teoria eta praktikak aztertu zituen bere *Redes de indignación y esperanza* (2012) lanean. Internet edota komunikazio-euskarri mugikorrek oinarri, zehazki, «elkarri lotutako mugimendu sozialak»⁴ hartu zituen aztergai. Horiek, lehenik, mundu arabiarrean hedatu ziren; ondoren, Europan edo Ameriketako Estatu Batuetan ere altxa ziren krisi ekonomikoaren kudeaketa ez eraginkorraren aurka. Guztiek ziberespazioan zein espazio urbanoan sarean konektatzea izan zuten komunean. Sustriak aztertuz gero, botere-lehiarekin lotutako borroka izan ziren guztiak:

4. Jatorrizkoan «movimientos sociales en red» dio.

Gure jendartean, sare-gizartea izendatu dudan honetan, boterea multidimentsionala da, eta honela dago antolatua: sare programatuen inguruan, hain zuzen, ekintza bakoitzeko aktore ahaldunduen interes eta balioen arabera. Botere-sareak giza adimenean eraginda gauzatzen dira, nagusiki (baina ez bakarrik), masa-komunikazioko sare multimedien bidez. Beraz, komunikazio-sareak boterea eraikitzeke ardatz erabakigarria dira (Castells, 2012: 24-25).

Boterea sareen konexio eta programazioaren bidez gauzatzen da. Beraz, kontraboterea sustatzeko bi bide ageri dira: horiek bestelako interes zein balio batzuen inguruan birprogramatzea; edo, bestela, konexio menperatzaileak eteteaz bat aldaketa sozialerako erresistentzia-amaraunak konektatzea, horretarako, elkarri lotutako jendartearen moduetara egokitutako bideak erabilia. Bada, zeintzuk? «Mezu autonomoen ekoizpena eta komunikazio horizontaleko sare autonomoen garapena» (Castells, 2012: 26). Zentzu horretan, ondorengo ere adierazten du: «Gaur egun, historiako komunikabide azkarrena da komunikazio horizontaleko sare digitalekin osatutako komunikazio multimodala; horixe baita autonomoena, interaktiboena, birprogramagarria eta autopropagableena» (Castells, 2012: 32).

Liburuan, Tunisiako, Islandiako, Egiptoko iraultzak, Udaberri Arabiarra, Espainiako suminduak eta *Occupy Wall Street* mugimenduak aztertu ditu. Horra guztien giltza: «Komunikazio-prozesua izan ohi da mugimenduari barne-konexioa eta kanpoko babesa lortzen laguntzen diona, sareak mugimenduaren odol-hodiak bihurtuta» (Castells, 2012: 170).

Halaber, kontakizunak ere berebiziko garrantzia dauka transmedia-mobilizazio sozialetan. Halaxe adierazi izan dugu lehenago ere, *Korrika: una visión transmedia* (2013) eta *Korrika, a transmedia view* (2015) artikulutan.

3. Euskal Herrian ba al da eredurik? Askegunea, transmedia-mobilizazio soziala

Askegunea izena eman zioten, 2013ko apirilean, Donostian, garatutako desobediencia zibileko mugimendu sozialari. Askegunearen ondoren etorri ziren Ondarroakoa edota Iruñekoa; baina, jarraian, Donostiakoa soilik aztertuko da, horixe izan baitzen transmedia-mobilizazio izendatu dugunaren abiapuntua.

3.1. Askegunea: aurkezpen txartela

Beharrezkoa da, bai han jazotakoa, bai aurrekariak deskribatzea, 2013ko apirilean Donostian gertatutakoa ulertzeko zein haren nolakotasun berezi horren azterketa egiteko:

2007ko urriaren 30tik abenduaren 4ra bitarte, 26 gazte atxilotu zituen Espainiako Poliziak. 2008ko azaroan, hemezortzi auzipetu egin zituzten Segiko kide izatearen akusaziopean. 2009an, baldintzapeko askatasunean aske geratu ziren, guztira 170.000 euroko fiantzak ordainduta. 2010eko ekaina eta uztaila bitartean, Espainiako Auzitegi Nazionalen epaituak izan ziren. Hamabost kondenatuak izan ziren sei urteko kartzela zigorrera. 2011ko urrian, Auzitegi Gorenak Auzitegi Nazionalaren epaia balio gabetu zuen, eta epai berri bat egitea agindu zion, defentsaren argumentazioa

kontutan hartu ez zuelako. Hilabete beranduago ordea, Auzitegi Nazionalak berriz ere hamabost gazteak zigortu zituen. Helegitea aurkeztu zuten, eta aurtengo otsailaren 13an berrikusi zuen auzia Auzitegi Gorenak. Gorenak berretsi egin du Auzitegi Nazionalak Donostiako hamabost gazte auzipetuetako zortziri ezarritako zigorra. Seina urteko espetxe zigorra ezarri diete Imanol Vicente, Egoi Alberdi, Mikel Arretxe, Nahikari Otaegi, Oier Lorente, Ekaitz Ezkerra, Adur Fernandez eta Aitor Olaizolari⁵.

Zigor horiek salatzeako manifestazioa egin zuten, apirilaren 8an, Donostiako Bulebarrean; Eleak-ek sustatuta, Euskal Herrian eskubide zibil eta politikoen alde egiteko 2011n sortutako mugimenduak, hain zuzen ere. Epaia ezagutu ondorengo biharamunean, apirilaren 9an, asteartea, agerraldia egin zuten gazte auziperatuek eguerdian Bulebarrean:

Gazte hauek prentsaurrekoan adierazi zuten ez dutela epaia onartzen eta ez direla ezkutatuko, ez dutelako ezkutatzeko moduko ezer egin. Gauzak horrela, Herri harresia eraikitzea erabaki dugu, eta Boulevardean AskeGunea espazioa sortu dugu. Zortzi gazte hauek epaia atera zenetik egunero bertan daude, ehunka pertsonaz inguratuta. Goizetan, 8:30etan, zigortutako bakoitzaren etxe azpian ehun bat pertsona ari gara biltzen, hauek Askegunera eramateko, besoak elkar lotuaz, #herriharresia eginez.

Egun osoko programazioak antolatzen ari gara jendea bertara etorri eta nahi duena egiteko: kontzertuak, tailerrak, proiektzioak, hitzaldiak... Gauean, dena desmuntatu eta 20:00etan berriz ehunka pertsonak babestuta etxera eramaten ditugu hurrengo eguna arte. Atxilotze agindua jasotzen dutenean eta polizia atxilotzera etortzen denean, erresistentzia baketsua erabiltzeko asmoa dugu, bertan dauden guztiak beren inguruan besoak lotuta jarriko gara ahalik eta indar gehienez eutsita. Herritarren indarrak batuko ditugu, gure gazteak eraman ez ditzaten⁶.

Hurrengo egunean, apirilaren 10ean, atxilotu zuen Ertzaintzak Ekaitz de Ibero Bulebarrean bertan. Gaztea Askeguneko auzian absolbitua izan zen; hala ere, aurretik beste zigor bat betetzeko epaia zeukan, eta agindu horixe bete zuten polizia. Tentsio-uneak bizi ondoren, Askegunek aurrera egin zuen aste osoan. Larunbatean, apirilaren 13an, manifestazio jendetsua egin zen Donostian.

Asteartean, apirilaren 16an, 8 gazteak atxilotzeko agindua iritsi zen Auzitegi Nazionaletik. Egun horretan, Askegunean 24 orduz egoteko deia luzatu zuten. 72 ordu iraun zuen etengabeko erresistentziak Donostian. Handik hiru egunetara, apirilaren 19an, goizaldeko 06:00ak aldera iritsi zen Ertzaintza atxilotetak egitera hiru ordu inguruko operazioan.

5. Askegunek 2013ko apirilaren 13an zabalduko albisteko informazioa. Albistea osorik (azken kontsulta-eguna: 2014/08/27): <<http://askegunea.wordpress.com/2013/04/13/zortzi-gazteri-jarritako-zigorra-salatzeako-manifestazioa-egin-dute-donostiako-Boulevardean/>>.

6. «AskeGuneke babesaz herri harresia eraikitzen» manifestua 2013ko apirilaren 16an argitaratu zuten Askegunea webgunean, osorik kontsultatzeko (azken kontsulta-eguna: 2014/08/27): <<http://askegunea.wordpress.com/2013/04/16/manifestua-askeguneko-babesaz-herri-harresia-eraikitzen/>>.

3.2. Askegunea = transmedia-mobilizazio soziala

Izendapen hori jarri diogu Askeguneari, transmedia-izaera nabarmena duen mobilizazio soziala delako, eta bete-betean, horrelako proiektu baten ezaugarriak betetzen dituelako; baina zer dio kontzeptuaren definizio zehatzak?

Horretarako, Sasha Costanza-Chock ikertzailearen lana hartuko dugu ardatz. Massachusetts Institute of Technology-ko irakasleak *Se ve, se siente: Transmedia mobilization in the Los Angeles immigrant rights movement* doktore-tesia aurkeztu zuen 2010ean eta, bertan, *transmedia mobilization* kontzeptua definitu zuen:

Mugimendu sozial baten kontakizuna, sistematikoki, hainbat plataforma mediatikoren bidez hedatzen den prozesu bat da, mugimenduaren «mundu» banatuak edota parte-hartzaileak sortzeko; sarbiderako aukera asko eskainiz, horrela, mugimenduaren identitatea eta emaitzak indartzeko (Costanza-Chock, 2010: 115)⁷.

Autore horrek hiru gako nabarmendu zituen transemedia-mobilizazio sozialen hedapenerako: 1) Medio digitalen alfabetizazioan aurrerapausoak ematea, batez ere, horien irakurketa, idazketa eta garapenean. 2) Aldaketa mugimendu sozialetan, autodokumentaziorako joera. 3) Norbaitentzat hitz egitetik norbaitekin hitz egitera pasatzea: mugimenduaren kontalariak, komisarioak, gidariak sortzea.

Jarraian, lau puntutan aztertuko ditugu Donostiako Askegunea transmedia-mobilizazio sozial bihurtu zuten ezaugarriak: molde zahar eta berrien arteko talka, komunikazio autonomoaren nagusitasuna, kalearen eta sarearen uztarketa, eta, ondare-izaera.

3.2.1. Molde zaharrak VS Molde berriak

Esperientzia berritzailea izan zen, borroka molde zaharretatik askatu eta bide berrien esperientziaz praktikara eraman baitzuen: Donostiako Askegunea Euskal Herrian garatutako desobediencia zibileko aurreneko esperientzia masibo bihurtu zen; erresistentzia baketsua baliatu zuten arrazoi politikodun epaiketetan auziperatutako gazteen alde egiteko. «Ereku publikoaren irekitasuna aldarrikatzen du protesta eredu honek [...] zabaltze hori komunikazio eredura ere zabaldu da» (Zubiaga, 2014⁸).

Transmedia-mobilizazio izendatu dugun Askegunek, batez ere, dimentsio isolatuak bateratzeko gaitasuna erakutsi zuen, besteak beste, etengabe hazten den borroka-eredu bat suspertzeko eta borroka horren osagai guztiak artikulatzeko. Komunikazio-lanari esker, Askegunearen dimentsio guztien arteko zubiak eraiki ziren eta, horrela, bat-egite hori parte-hartze dinamika mobilizatzaileen onurarako bideratu zen.

7. Halaber, 2014ko urrian, *Out of the Shadows, Into the Streets! Transmedia Organizing and the Immigrant Rights Movement* liburua argitaratu zuen Manuel Castells-en hitzaurrearekin (azken kontsultateguna: 2015/03/21): <<http://mitpress.mit.edu/books/out-shadows-streets/>>.

8. (Zubiaga, 2014) erreferentziak, Mario Zubiagak «Libre Topaketak 0.1» ekimenean emandako hitzaldian adierazitakoak jasotzen ditu (azken kontsultateguna: 2015/03/21): <https://www.youtube.com/watch?v=6cf_TTOpOJc>.

Ez da ahaztu behar «mugimendu sozialen ezaugarri berri gehienak testuinguru sozial eta politikoetan gertatutako aldaketetatik eratorri ohi direla» (Tilly, 2005). Askegunearen kasuan ere, Euskal Herrian bizi dugun testuinguru sozial zein politiko ezberdina, argi eta garbi, molde berriei ekiteko hazia izan da. Egoera horretan, «eragile politiko eraldatzaileak ere ohiko funtzioa birpentsatzen ari dira: lehen, alderdi bertikal edota kontsigna-emaile ziren; gaur, koordinatzaile edo laguntzaile gisa arituko den eragile horizontalago bihurtu dira»; horrenbestez, «behetiko autonomiari eskaini beharreko tarte orain artekoa baino zabalagoa izango da, ezbairik gabe» (Zubiaga, 2014).

Hain zuzen, politika egiteagatik atxilotzen zebiltzan gazteen inguruan sortu zen Donostiako Askegunea. Ordura arte, tankera horretako auzietan Euskal Herrian gertatu ez zen protesta masibo moduan gorpuztu zen: desobedientzia zibilean. Horixe izan zen garai zahar eta berrien arteko mugarría.

«Desobedientzia zibilaren inguruko eztabaida betidanik izan da Euskal Herrian, baina azken aldian berpiztu egin da» (Zubiaga, 2014). Sasoi historiko batzuetan aldaketarako aukerak zabaltzen dira, krisiek ere aukerak dakartzate. Gaur egun, horrelako garaia bizi dugu, bai ekonomiari dagokionez, bai protesta moduetan.

Donostiako Askegunearen urteurrenaren harira, herri-harresiak Eleak mugimenduarekin batera deituta, Libre Topaketak 0.1 ekimena egin zuten 2014ko apirilean Gipuzkoako hiriburuan. Bertan, Mario Zubiagak eskaini zuen hitzaldian adierazi zuen protesta-tresna eraginkor batek bete behar dituen baldintzak zeintzuk diren: 1) Ahalik eta esparru sozial zabal zein anitzenak batzea, indar sozial edota politikoak bloke batean, koalizio batean, artekatzea. 2) Polarizazioak argi egotea, erdibidean ahal den jende gutxien gelditzea; hots, polarizazioa izatea aldaketa nahi dutenentzat egokia. 3) Berrikuntza protesta edo mobilizazio moduetan, sistemaren errutinak apurtzeko tresnak erabiltzea.

Baldintza horiek gurera ekarrita, Zubiagak desobedientzia zibila jo zuen protesta modu egokienentzat, eta adierazi zuen mundu-mailako praktika ere gure alde dagoela, lau ezaugarri aipatzearekin bat:

- 1) Egungo borroka moldeetan eremu publikoan egotea, eremuok okupatzea, luzaroan bertan egotea, pilaketak sortzea, gaur egungo mobilizazio garaikideen ezaugarri da. Eta pilaketak sortzeko, teknologia berriek bideak eskaintzen dituzte.
- 2) Autobiolentziaren ideia. Interpretazio marko berriak pizten ari dira mundu mailan biolentziaren inguruan. Ze puntutaraino prest gaude gure buruari biolentzia puntu bat eragiteko? 3) Egun, gero eta gehiago, eskubideen egikaritzea hutsa bilakatzen da jarduera erresistente bat. Legalak diren, legezko eskubideen praktika. Erresistentziaren kontzeptualizazioa legedia betetzearen inguruan mintzo da. 4) Desobedientziaren ondorioak: sistemak ikasi du zigorra planteatzerako momentuan kartzela ez dela irteera, zigor zibilen aplikazioa, inhabilitazio zibila edo zigor ekonomikoa zabaltzen ari dira —hemen oraindik ez— (Zubiaga, 2014).

Gurean, Eleak mugimenduak urteak daramatza kartzelara doazen pertsonekin biltzen, haiek babesten eta haiekin lan egiten. Kasu bakoitzetik ikasi dute, bidean metatutako esperientzietatik. Hala iritsi ziren Donostiako auziperatuengana haien

txanda heldu zenean. Haien filosofiaren baitan, epaituek daukate azken hitza, betiere, haiek nahi dutena egiten da. Haien inguruan egiten ziren planteamenduak, baina komunikazio-taldeak erabakiak hartzeko gaitasuna zeukan:

Askeguneak behar zun transmititu zerbait berria zela, ezin zala izan betiko eskemetan planteatzen zan zerbait zeren bataila hau irabazteko, dala atxiloketa politikoak gelditzea, gogoeta zan jende berria etengabe jun behar zala borroka horrekin identifikatzen eta ordun, tresna berriak eta metodologia berriak eta lengoia berria zen ezinbestekoa (Arbelaitz, 2014, elkarrizketa sakona⁹).

Garaiak aldatu zirela erabaki zuten; beraz, planteamendua aldatzeko ordua iritsia zen, beti, irmotasuna mantenduta, hala ere, atseginagoa bihurtuta giroa. Borroka moldea itxuraldatzeak komunikazio moldea aldatzea zekarren eskutik, «Gure taldeak eraman zuen gidaritzta planteamenduarena. Nik ez nuen momentuan hola ikusten, baina gero konturatzen zera igual baietz» (Arbelaitz, 2014, elkarrizketa sakona) eta estrategia-aldaketak hasieran eszeptizismoa izan zuen erreakzio:

Komunikaziokoak prest eramaten zuten zer gauzak egin nahi zian eta gogoratzen naiz komentatzen zutela beraiek esaten zituzten gauzak besteei hasieran *oso a txino* sonatzen zietela. *Globoak? Laranjak? Baina, zetako? Edo, Zer nahi dezu lortu horrekin? Edo, Ez det ikusten edo Zegatikan nahi dezute Bulean jarri zailagoa da eta?* (Arbelaitz, 2014, elkarrizketa sakona).

Edonola ere, erabaki horien arrazoiak azaldu eta erreakzio eszeptikoak aldeko egitea lortu zuten; horrela, borroka komunikatiboa desobedientzia zibilaren baitan landuta, euren makineria abiarazi zuten.

3.2.2. Bestelako komunikazioa, komunikazio autonomia

Garai politikoa aldatu zenez, mobilizazioaren planteamendua ere egokitu zuten; bai politikoa, bai komunikatiboa. Horretarako, molde zaharrekin apurtzeko, desobedientzia zibila eta bestelako komunikazioa ezarri ziren Askegunean.

Horra bestelako komunikazioaz Txema Ramirez de la Piscina azalduakoa:

Demokrazia parte-hartzailearen barruan kokatzen den prozesu dinamiko, horizontal eta zabala: komunikazio prozesuaren elementu guzti-guztien funtzioak eta mugak kuestionatzen eta berritzen ditu, erretorikaren logikan oinarritzen da, teknologia berriak konplexurik gabe profitatzen ditu eta gizarte zibil aktibo eta eraginkor baten inguruan ardatzen da (Ramirez de la Piscina, 2004: 129).

Castells-en sare-gizarte kontzeptuaren garaietan bizi gara; hots, konektatutako jendartean, eta horrek ekarpen handiak egin ditzake komunikazioan zein herri-mugimenduen borrokan.

Alde batetik, herri-mugimendua anbiziosoa da eta beti daude lanak iteko denboragatik edo ez zaizkizulako eskuak iristen egingo ez zenituzkeenak, baina asmatzen badezu laguntza nola eskatu, lortu dezakezu sarean jendea lanean

9. (Arbelaitz, 2014, elkarrizketa sakona) erreferentziaren transkribapen osoa, Libe Mimenzaren *Transmedia eta mobilizazio sozialak: Askegunearen komunikazio estrategia* Master Bukaerako Lanean kontsulta daiteke.

jartzea. Eta bestetik, kolektibo sentimendua sortzen dezu. Lortu nahi genduna zan Askegunea edo Herri Harresia kontzeptua ez izatea soilik Bulean zegoen jendea bakarrik. Zuk lortzen badezu nerekin ados egote hutsa eta mezu pare bat bidaltzea ia ekipo berdinean gaude... jende horri atea irekitzen ari zara eta kapetan irekitzen joatea lortzen dezu, geroz eta zabalagoa bihurtuz mugimendua (Arbelaitz, 2014, elkarrizketa sakona).

Komunikazio autonomia praktikara eramanez gauzatzen da hori, norbera komunikabide bihurtuz. Eta bide horretan, *Democracia real Ya* mugimenduaren hitzak jasotzen ditu Castells-ek:

Herritarrek komunikabideen blokeoa gaindi dezaketela erakutsi du M-15 mugimenduak. Masa-autokomunikaziorako eta sareko autogestiorako gaitasuna [...] mugimendu postmedioen ezaugarri da. Postmedio da tresnen, teknologien eta parte-hartzerako zein komunikaziorako hedabideen berreskurapen teknopolitiko bat egiten delako (Castells, 2012: 124).

Mugimendu postmedio bihurtuta, mobilizazioek komunikabide izan behar dute ezinbestean, hots, autokomunikazioa erabili. Askegunearen kontakizuna eta haren osagai guztiak horrek antolatu baitzituen; hortaz, arrakasta ez zen berdina izango tankerako lanik gabe. Bestelako komunikazio autonomoaren gakoak sareko lanketa, dokumentazioa, izaera emozionala edota beste hedabideekiko jarrera izan ziren Askegunearen kasuan.

3.2.3. Kalearen eta sarearen uztarketa

Askegunek bazeukan testuinguru berezi baten euskarria eta kalea ere bizi-bizi aktibatu zuen. Bulebarreko espazio fisikoan kontzentrazioak egiten ziren, eztabaidak, tailerrak, erakusketak, sorkuntza-ekimenak, hitzaldiak, proiektzioak, musika, kultur emanaldiak... auzolanean jarri edota kentzen ziren gunea eta bertako beharriaz erantzuteko azpiegitura guztia. Kaleko ekintzen dimentsio zabal horrek parte-hartzea izan zuen lehengai: partaidetza fisikoak zein birtualak ahalbidetu baitzuen Askegunearen potentziala.

Komunikazio-taldeak Donostian bertan zer gertatzen zen kontatu zuen; horretarako, Askegune barruko eta kanpoko mezuak antolatu zituen. Sare sozialen, bai azkartasuna, bai arrakasta baliatuta sare birtual aktibista jarri zuten martxan. Horrela, sarea eta kalea uztartzea lortu zuten, modu hauetan:

- Sirena erabilia: hots, hori zen Ertzaintza atxilotetak egitera zetorrela zioen abisua, eta fisikoki kalean zegoen arren, eragina sareetan ere zabaldu zuten. Gainera, Askeguneko kideek asmoa izan zuten sirena birtual bat sortzeko, horrela, etxetik aktibatua eduki ahal izateko aukera eskaintzeko; han ez zegoena ere, bertan balego bezala senti zedin.
- Sareko jarduna erakutsita: komunikazio-lana kanpora eta barrura begira egiten zen, hortaz, Bulebarrean bertan zeudenei Interneteko jarduna helarazten saiatu ziren. Bada, nola? Proiektore bidez mezuak erakutsita edo mikrofik jardun horren berri emanda, betiere, bi planoak elkarri lotzeko ahaleginean.

- Biraltasun birtuala fisiko bihurtuta: helburua Donostiako Askegunean ahalik eta jende gehien biltzea zen. Sareko biraltasunarekin lortu zen jendea harresira hurbiltzea bertako erresistentzian parte hartzeko.

Argi dago Askegunea ez zela zerbait fisikoa bakarrik izan, komunikazio-lanaren ondorioz lortu zen Bulebarreko espaziotik harago eramatea. Kanean zein sarean aldi berean gertatu zen Askegunea. Kaleko eta Interneteko gertakizunen zubiak lotu zuen mobilizazioa; hedatze komunikatiboa, hala globala, nola eraginkorra, ahalbidetzeko.

3.2.4. Ondare-izaera

Askeguneak gatazka Donostiako auziperatuengan lerratu beharrean, arreta beste gune batean jarri zuen: beraien militantzia politikoagatik atxilotzen eta espetxerutzen ari ziren euskal herritarren inguruan. Aldaketa horrek ondare bihurtuko zen planteamendua zein tresnak eragin zituen.

Horrela, Donostiako Askegunearen ondotik, 2013ko maiatzaren 10etik 15era, Ondarroako Zubi Harresia egin zen; eta, 2013ko urriaren 13an, Iruñeko Herri Harresia.

Horrenbestez, borroka-esparru berri bat sortzen ari zela ikusi zuten Eleak mugimendukoek: «Borroka esparru berria soilik ez, berritzailea» (Eleak, 2014¹⁰). Auziperatuen inguruan, salbuespen-politika batzuen kontra egiteko, jarrera desobedienteak abiarazi ziren. Lanketa horiek babes herritarra hartu zuten ezinbesteko tresnatzat. Horrez gain, mugimendu autozentratuak definitu zituzten abiapuntu: «Gure buruak interpelatuz, gure eskuetan dagoela esanez eta guk konpromisoak hartuz, nahikoa gizarte-presio sortzen egoera aldatzeko» (Eleak, 2014).

Aipatzekoak dira, halaber, mezu zainduen trataera, hedapen zein parte-hartzerako sare sozialen erabilera, komunikabide propioak sortzea eta horiei guztiei batasun bat ematea; borrokaren ondarea ondare komunikatiboa ere badelako: «Kolore laranja, lelo motak, bitartekoak eta mezua; Herri Harresiek mantendu beharko luketen mezuak diskurtso integratzailea behar du» (Eleak, 2014). Hortaz, ondarean, kontzeptuak dira garrantzitsuena; tresnak, kontzeptu horiekin osatutako mezueta molda baitaitezke.

4. Askegunearen komunikazio-estrategia

Askegunean gertatzen ari zena kontatu eta zabaltzeko behar zein gogo ikaragarri batek piztu zuen komunikazio-premia. Hasieratik, eskura zituzten tresna guztiak jarri zituzten egiteko horretara. Estrategia ehuntzeko, lantalde bat eratu zuten lehenbizi; gero, laguntza eskatu, kanean edota sarean, bai lanerako, baita hedapenerako ere. Helburuak zehaztu zituzten, komunikazioaren planteamendua definitu, tonua aukeratu, marka sortu eta ofentsiba-estrategiaz Herri Harresiaren askotariko

10. (Eleak, 2014) erreferentziak Zigor Olabarriak Eleak mugimenduaren izenean «Libre Topaketak 0.1» ekimenean emandako hitzaldian adierazitakoak jasotzen ditu (azken kontsulta-eguna: 2015/08/27): <https://www.youtube.com/watch?v=lqQCVYJJS78>.

unibertsoa hedatu. Barne- zein kanpo-komunikazioa zaindu ziren, besteak beste, horretarako sareak antolatuta.

4.1. Komunikazio-lantaldea

Auziperatuen aldeko mugimenduak hala eskatuta sortu zen lantaldea. Askegunearen lehen egunetan ahoz aho laguntza eskatu zen eta komunikazioan jarduteko gogoia adierazi zuen oro batu zen talde berrira. Bat-bateko lantaldea izan zen; esparru horretan jende berria batu zuena, askotarikoa. Aniztasun horrek zerbait ezberdina egitea eragin zuen. Ez ziren soilik sare sozialetako jardunaz arduratu, esparru orori erantzun zioten.

Taldea egunero biltzen zen, hasiera batean, Bulebarretik gertu dagoen Ikatz kaleko egoitza batean, halabeharrez. Dena den, Askegunean bertan egon beharra zeukatela ohartu ziren inprobisaziotik gogoetara pasatu zirenean; hortaz, bi mahai hartuta lokala utzi eta kalera atera ziren.

Taldea 5-10 lagun artekoa izan zen, irekia eta malgua; edonoren parte-hartze edo proposamenak jasotzeko prest. Bertan bildu ziren guztiak ez ziren komunikazio-arloko profesionalak; naturalki, zeregin horietan jardun nahi zuen oro batu baitzen taldera. Horrenbestez, taldeak ikaragarritzko kolaborazio-sarea ehundu zuen inguruan kartelak egiten, itzulpenetarako, bertan argazki zein bideoak grabatzen zebiltzanen materiala erabiltzeko... Lan asko zegoenez egiteko, laguntza eskatu zen, ondorioz, elkartasunez eta ekarpen pertsonal edota kolektibo puntualen bidez lortu zen lana aurrera ateratzea.

Lagundu zuen bakoitzak beretik eman zuen, bere ezagutza eta abilezietatik, denen arteko diziplinartekotasunaz lanketa integratua osatzeko.

4.2. Komunikazioaren balioa

Komunikazioaren garrantziaz ohartuta, dokumentazio-balioaz harago jo zuten eta ofentsiba-estrategia planteatu. Harresi informatiboa gainditzeko erabili zuten euren jarduna, elkartasun-sarea ehuntzeko eta elkartasuna mobilizazio bihurtzeko. Ahalik eta hedapen handiena lortzea izan zen planteamenduaren gakoetako bat. Horretarako, edukien biralitatea landu zuten; kalitatezko edukien sareko zabalpenean zentratuz. «Eduki bat ez bada hedatzen, hilda dago»¹¹ (Jenkins, Ford, Green, 2013). Aldi berean, ekimen bakoitzak are jende gehiago erakartzeko planteamenduarekin egin zuten lan, mobilizazioa handitzea lortzeko; hain zuzen ere, atxiloketa politikoekin amaitzeko mugimendura jende berria erakartzeko helburua ere hartu baitzuten.

4.3. Helburuak

Askegunearen komunikazio-planteamenduaren helburu nagusiak hiru izan ziren: jendarteak gertatzen ari zenaren berri izatea, atxiloketak agindu zituenari «faktura

11. Euskarara itzulia. Jatorrizkoak honela dio: «If it doesn't spread, it's dead».

ordainaraztea» eta Herri Harresi jendetsua eratzea Donostian. Taldekideek garbi zituzten hiru lan-lerroak; ez zituzten inon idatzi, baina intuizioz horrela jardun zuten, besteak beste, horietan zirelako elkarren artean planteamendu-aldaketaz hitz egitean identifikatutako helburuak.

Sakon hausnartu zuten erabaki guztiak helburuen norabide berean lerratzeko. Horiek definituta lan egiteak ahalbidetu zuen estrategia komunikatibo egokia eratzea eta, ondorioz, dimentsio guztien isla globala helaraztea.

4.4. Marka berria

Marka berriari lotutako blog zein sare sozialak 24 orduetan sortu zituzten; Askegunea eta Herri Harresia kontzeptuen inguruan ardaztu zuten sormen-lana.

Sortu zuten markaren iruditeria definitzean sinbologia zaindu zuten; izan ere, erreferentzialtasuna bilatzen saiatu ziren. Kolore laranjarekin aniztasuna eta baikortasuna irudikatzen ditu Askegunek. Kamiseta edota globo laranjen erabilerak ikusgarritasuna zein erreferentzialtasuna ematen dizkio ekimen orori; gainera, edonoren eskura dauden lan-tresnak dira.

4.5. Komunikazioaren tonua

Funtsezko bi ezaugarri izan zituen Askegunearen komunikazioaren tonuak: izaera baikorra eta gizatiarra.

Marka berria irudi baikorrarekin sortu zuten eta mezu positiboz eraikia izan zen. Helburuen alde egiteko, aldeko mezu baikorrak lehenetsi zituzten, era berean, horien erabilera errepikakorrek bide egin zion tonu inklusiboari. Indar asko jarri zuten, kanpo- zein barne-komunikazioan, baikortasuna nagusitu zedin.

Bestalde, erabaki zuten gertaeraren alde gizatiarrari protagonismoa ematea, kontakizunaren muinean pertsonak eta sentimenduak jartzea. Komunikazio emozionalaren bidez, ordura arte antzeko mobilizazioetan erabilitako estiloa hautsi zuten. Lehen txoke-eskema zena, gero, eskema inklusibo bihurtu zen; eta horixe izan zen jende berria erakartzeko gakoa, hain zuzen ere. Emozioak erabilia jendeak auziperatuekin konplizitate izatea lortu nahi zuten: pertsona horiek ez zirela zenbaki hutsak erakusteko; izakiak baizik, norbera bezalako gizon-emakumeak. Horregatik, humanizazioaz baliatu ziren; bakoitza bere izen-abizenekin aurkeztuta, karteletan haien aurpegiak jarrita, eskerrak emanda... konplizitateak lortzeko osagaiak gehitu zituzten.

4.6. Lehentasunen bide-orria

Behin estrategia-planteamendua zein helburuak zehaztuta zituztenean eta marka berria sortuta, komunikazio-euskarriak erabiltzen hasteko unea iritsi zen. Egin beharko zituzten lanen zerrenda bat osatu zuten, eta eginbehar horiek lehentasun-irizpidearen arabera antolatu. Egitekoen bide orriak premiazko lau urrats zituen:

1. Medioek ezer argitaratu baino lehenago, zer gertatzen ari zen deskribatzea; hots, informazio-iturri bihurtzea.
2. Auziperatutako pertsona bakoitza nor zen azaltzea.
3. Sarea baliatuz itzulpenak eskatzea.
4. Itzulpenak eginda zeudenean, webgunean jarri eta komunikabideetara zabaltzea.

Bizpahiru egun eman zituzten premiazko lau puntu horiek egiten, egin gabe zeuden oinarritzko komunikazio-lanak baitziren.

4.7. Barne-komunikazioa

Lehenik eta behin, komunikazio-taldeak hartu zuen bere gain Bulebarrera hurbildutako jendea gustura sentiarazteko ardura. Horregatik, etengabe irizpide garbiak emateaz gain, eskerrak ere ematen zituzten. Esker mezu horiek sarean barreiatu zituzten; mobilizazioko parte-hartzaileak gustura sentiarazteaz bat, jendea erakartzeko erabaki kontziente bati erantzuten baitzion estrategiak.

Horretarako, mikrofono bat zuten bertan; taldeak egiaztatzen zuen mikrofitik nork hitz egiten zuen eta nork ez. Donostiako Herri Harresiko parte-hartzaileei helarazitako irizpide garbi horien artean, tankera honetako mezuak ere zabaldu zituzten: komunikazioan beharrezkoak ziren gauzetan laguntzeko eskaerak edota jendeak telefonoarekin ahal zuen guztia grabatzeko deiak; garrantzi handia baitzeukan gertatzen zena dokumentatuta geratzea.

Bestalde, mezu positiboak zabaltzeko deia ere luzatu zitzairen, eta horiek sortzen lehenak komunikazio-taldekoak izan ziren. Bulebarrean jarri zituzten pankartetako leloak edo manifestazioetarako lema berriak ere asmatu zituzten. Taldeak positibotasuna kutsatzea lortu zuen, bai bertan, baita sarean ere; azkenerako, irizpide horri erantzuten baitzioten jendeak bere kabuz sortzen zituen mezuek ere.

4.8. Elkarlana

Komunikazio-estrategiaren parte garrantzitsu bihurtu zen elkarlana Askegunean; etengabekoa izan zen, bai bertan, bai sarean. Laguntza-eskaerak egin zituzten Internet bidez edo bakoitzaren adiskideak baliatuta.

Laguntza-deiei erantzunez, jendeak ekarpen zehatzak egin zituen: itzulpenak, mezuen zabalpena sare sozialetan, informazioa batu, albistegiak aztertu eta koberturaren berri eman, sakelakoak zein ordenagailuak utzi komunikazio-taldekoek erabiltzeko... Elkarlanerako aukerak erantzun zabala izan zuten; jendeari aukera eman zitzaion bertatik zein etxetik laguntzeko. Era horretan, inplikazio-maila askoko parte-hartzeak gauzatu ziren; konpromiso-maila ezberdinekin, denak ezinbesteko eta osagarri. Elkarlanaren bidez asmatu zen, batez ere, Donostian ez zegoenari ere Askegunearen parte sentiarazten edota parte bihurtzen.

Horrenbestez, aztergai dugun komunikazio-estrategiaren arrakastan erabakigarria izan zen elkarlana; hots, jendeari laguntza eskatzea eta ekimenaren parte sentiaraztea, horretarako, teknologiak eskaintzen dituen tresna egokiez baliatuz.

4.9. Komunikazio-tresnak

Besteak beste, kamerak, mugikorrek eta ordenagailu eramangarriak erabili ziren komunikazio-lan tresna gisa. Horiez gain, sareko hainbat baliabide ere bereganatu zituzten; testu idatzi, argazki edo bideoak sortu zein zabaltzeko. Tresnen erabilerarako estrategia egokia planteatu zuten; jada ezagunak izateaz gain, arrakastatsuak ere badiren tresnak lehenesteko eta prozesuan zehar egin beharreko egokitzapenetako ikaspenetatik baliatzeko. Horra euskarrien laburpena:

- **Manifestua:** auzia azaltzen zuen manifestua idatzi zuten lehenik eta behin. Behin idatzita, testu horrek zer gertatzen zen, auziperatuak nortzuk ziren azaltzen zuen, datuekin zein protagonisten irudiekin. Sei hizkuntzatan irakur zitekeen (euskaraz, katalanez, espainieraz, frantsesez, ingelesez, alemanez eta grezieraz). Donostian bertan informazio-gunean jartzeaz bat, sarean ere zabaltzen zen. Halaber, horixe izan zen Euskal Herritik kanporako kasuaren aurkezpen-txartela.
- **Webgunea:** Askegunearen webgunea blog bat da, zehazki, sortutako edukien biltoki izatea da haren zeregina. Bertan manifestua, kronikak, gunearen egitaraua, jasotako elkartasun-mezuak, argazkiak, bideoak eta sareetako loturak daude eskuragarri. Teknikoki, webgunea sortzeko Wordpress software askeko plataforma erabili zuten.
- **Youtube:** gertatzen ari zena bideoz grabatzeko lanari ikaragarriko garrantzia eman zitzaion; baita bideoak sortu eta sareetan zabaltzeko ere. Hainbat bideo sortu zituzten, auzolanean grabatu, itzuli edota muntatu; horiek sareetarako, Youtubeko Askegunearen bideo-kanala baliatu zuten. Kanal horretan, 39 bideo daude, 314 harpidedun ditu; orotara, 212.882 erreproduzio¹².
- **Sare sozialak:** horien bidez zabaltzen ziren Askegunearen inguruan sortutako edukiak, Interneten jarduteko irizpideak, laguntza-eskaerak, alertak edota animo-adierazpenak. Sareetan jarduteko estrategia zehatza pentsatu zuten eta helburuak lortzeko euren portaeretan oinarritutako lanketa egin zuten; hain zuzen ere, sare sozialen funtzionamendua arautzen duten roboten jokoaren arabera estrategia. Sare sozialekiko ikuspuntu zehatz bat jendarteratu zuten: estrategikoki erabilita oso tresna indartsuak dira, batez ere, zure mezu hori laguntza eskatuz barra-barra hedatzeko. Horien erabilera sutsuari esker, komunikabide handiek gaia ezkutatzeko eraturako informazio-harresia gainditzea lortu zen; eta frogatu zuten, Internet ondo erabiliz gero, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki urrutira heltzen dela, urrunera

12. Youtubeko kanalari dagozkion datuak, eta aurrerago, bideo zehatzen inguruan aipatuko direnak kontsultatu diren azken eguna: 2014/08/24.

eta azkar. Twitter nahiz Facebook izan ziren Askeguneak erabili zituen sare sozialak.

- Zuzenekoak: 18 zuzeneko egin zituzten telefono mugikor bidez. Horretarako aukera eskaintzen duen Bambuser aplikazioa aukeratu zuten tresna modura¹³. Testigantza horien bidez, Askegunean gertatzen ari zena ikusteko aukera eskaini zuten.
- Sinadura-bilketa: sinadura-kanpaina¹⁴ birtual bat ere abiatu zuten EAJri Herri Harresiaren parte izateko eta Askegunera Ertzaintza ez bidaltzeko eskatzeko, Twitter sarean atxikimendu-kanpainak abiarazteko Twitition zerbitzua erabilia. 208 sinadura digital bildu zituzten.
- Sarea pantailan jartzea: Twitterreko #askegunea traola edozein pantailatan proiektatuta jarraitu ahal izateko helbidea¹⁵ eskaini zuten. Horrelakoak egiteko balio duen Visibletweets zerbitzua erabili zuten, besteak beste, pantaila bat dagoen edozein lekutan mezuen jarraipena egiteko aukera eskaintzeko; horrela, nahi zuen orok egin zezakeen kalea eta sarea uztartzeko ahalegina.
- Bideo-jokoa: asko zabaldu ez bazen ere, Arkanoid bideo-joko bat¹⁶ moldatu zuten Herri Harresia irudikatzen.
- Kolaborazioz sortutako online dokumentuak: jendearen parte-hartzea idatzien sorkuntzarako edota beharrezko informazioak osatzeko ere baliatu zuten. Esaterako, Euskal Herriko Batzokietako helbide elektronikoak zein EITBko kazetarien e-postak biltzeko. Horretarako, Piratepad erabili zuten; hots, testuak elkarren artean, denbora errealean eta online sortzeko tresna.
- Eduki eratorriak: Askeguneak era askotariko eduki eratorriak eragin zituen, *User Generated Content* deiturikoak. Anglizismo horrek erabiltzaileek sortutako eta sarearen bidez zabaldutako edukiak definitzen ditu. Herri Harresiaren kasuan argazkiak, bideoak edota testuak izan ziren izaera horretako edukiak; elkartasun-mezu modura zein bertan bizitzen zena dokumentatu edo sareetan hedatzeko asmoarekin eginak. Denborak aurrera egin ahala, abestiak ere sortu dituzte euskal musikariek; Egurra eta Kitto taldearen *Heldu besotik* edo Governors taldearen *Harresia* kantuak, esaterako.

Donostiakoaren ondoren, Ondarroan edo Iruñean eratutako Herri Harresiak ere erabiltzaileek sortutako eduki eratorritzat har ditzakegu. Bestalde, Askegunearen esperientzia dela-eta sortutako proiektu bat ere nabarmendu behar da: 2011ko urrian aurkeztu zuten Herri Harresiak eraikitzeke Erreminta-Kutxa. Eleak mugimenduak sortu zuen agiri hori; hain zuzen, salbuespen-politikei, epaiketeki eta espetxeratzeei aurre egiteko gida legez.

13. Azken kontsulta-eguna 2014/08/24: <<http://bambuser.com/channel/Donostiauzipera>>.

14. Azken kontsulta-eguna 2014/08/24: <<http://twitition.com/f3r6q>>.

15. Azken kontsulta-eguna 2014/08/24: <<http://visibletweets.com/#query=%23askegunea&animation=2>>.

16. Azken kontsulta-eguna 2014/11/14 (2014/08/24an, jada, ez zegoen eskuragarri): <<http://jokoak.euskalherria.info/HerriHarresia/>>.

5. Ondorioak

Askegunearen komunikazio-estrategiaren azterketa egin ondoren, honako egitate hauek baieztatu ditugu:

- Mobilizazio sozialek unibertso narratibo zabal eta parte-hartzaileak artikulatzen dituzte, hau da, transmedia-ikuspegiz eraikitzen dira.
- Era berean, ikuspuntu hori bizi-bizi dago Euskal Herriko gizarte-mugimenduetan eta gakoetako bat da mobilizazio sozialen arrakastan zein biziraupenean.
- Dena den, transmedia-ikuspegia garrantzitsua da, baina, are garrantzitsuagoa, aurretiazko diseinua. Nekez eskura daitezke gaurko komunikazio-testuingurura egokitutako edukiak, horiek abiatu baino lehen, garapenean kontuan hartu beharreko ezaugarriak begietsi gabe. Erabiltzailea gogoan diseinatu behar da estrategia, eta aplikazioan, publikoa limurtzeko zein bere atxikimendua lortzeko urratsak eman.
- Mobilizazio sozialek ere transmedia-izaeran sakontzeko abagunea daukate eta horretan lagungarri dira bai mundu zabalean loratzen ari diren mugimendu berriak, bai komunikazioari dagokion gaur egungo testuingurua —edozeinek baitauka gaitasuna horietaz jabetu, alfabetatu eta egunerokoan baliatzeko—.
- Hortaz, moldatzen ez direnak bidean geratuko dira; ezinbestean, agertoki mediatiko garaikidera egokitu beharra daukate.
- Bide horretan, diskurtso berria sortzea dagokie mobilizazio sozialei eta beraien komunikazio-estrategiak berrikustea; hain zuzen ere, eskura daukaten mintzaira berriaz jabetzeko.

Ondorioak ondorio, transmedia-mobilizazio sozialen aroaren hasieran gaude oraindik, horrenbestez, lehen taupadak dira aztergai ditugun aleak; hala ere, ukaezina da etorkizunerako oinarriak jartzen ari direla orain eta hemen.

Bibliografia

- Arana, E.; Narbaiza, B. eta Mimenza, L. (2013): «Korrika: una visión transmedia», in M. Ledo eta M. Inmacolata Vassallo de Lorpés (ed), *Libro de actas XIII Congreso Internacional IBERCOM*, ASSIBERCOM/AGADOM, Santiago, 2.533-2.544, <<http://www.transbideak.com/berriak/korrika-una-vision-transmedia-aurkezpena-ibercom-jardunaldian/>>.
- , (2015): «Korrika, a transmedia view», *International Journal of transmedia Literacy* [Prentsa].
- Arbelaitz, L. (2014): «Askegunetik urtebetetera», *ARGIA*, **2.411**, 23, <<http://www.argia.com/argia-astekaria/2411/askegunetik-urtebetetera>>.
- Castells, M. (2006): *La sociedad red: una visión global*, Alianza, Madrid.
- , (2012): *Redes de indignación y esperanza: los movimientos sociales en la era internet*, Alianza, Madrid.

- , (2014): «El poder de las redes», *Vanguardia Dossier*, **50**, 8-13, <<http://www.lavanguardia.com/internacional/20131217/54397298092/el-poder-de-lasredes-sociales-vanguardia-dossier.html>>.
- Costanza-chock, S. (2010): *Se ve, se siente: Transmedia mobilization in the Los Angeles immigrant rights movement*, University of Southern California dissertations and theses, Kalifornia, <<http://web.mit.edu/schock/www/docs/transmedia-mobilization-scc-diss.pdf>>.
- Dena, C. (2009): *Transmedia Practice: Theorising the Practice of Expressing a Fictional World across Distinct Media and Environments*, PhD University of Sydney, <<http://www.christydena.com/phd/>>.
- Eleak (2014): *Libre Topaketak 0.1 ekimenean Zigor Olabariak Eleak mugimenduaren izenean emandako hitzaldia*, <<https://www.youtube.com/watch?v=lqQCVYJjS78>> (Kontsulta: 2015-08-27).
- Guardia, I. (2013): «La ruptura del relato en la narración transmedia: creación de espacios para la acción social», *FONSECA Journal of Communication*, **6**, 258-279, <http://fjc.usal.es/images/stories/fonseca/documents/articles/2.monografico/la_ruptura_del_relato_en_la_narracin%20.pdf>.
- Irala, P. (2014): «Nuevas narrativas en el periodismo actual. El periodismo transmediático», *Estudios sobre el mensaje periodístico*, **20(1)**, 147-158, <<http://revistas.ucm.es/index.php/ESMP/article/view/45224>>.
- Jenkins, H. (2003): *Transmedia Storytelling*, <<http://www.technologyreview.com/news/401760/transmedia-storytelling/>> (Kontsulta: 2015-08-27).
- , (2008): *Convergence Culture. La cultura de la convergencia de los medios de comunicación*, Paidós, Bartzelona.
- Jenkins, H.; Ford, S. eta Green, J. (2013): *Spreadable media. Creating value and meaning in a networked culture*, New York University, New York.
- Kinder, M. (1991): *Playing with Power in Movies, Television, and Video Games: From Muppet Babies to Teenage Mutant Ninja Turtles*, University of California Press, Berkeley, <<http://ark.cdlib.org/ark:/13030/ft4h4nb22p/>>.
- Mimenza, L. (2014): *Transmedia eta mobilizazio sozialak: Askegunearen komunikazio estrategia*, Gizarte Komunikazioa Unibertsitate Masterreko Master Bukaerako Lana, UPV/EHU, Leioa.
- Moloney, K. (2011): *Porting transmedia storytelling to journalism*, PhD University of Denver, <http://www.colorado.edu/journalism/photojournalism/Transmedia_Journalism.pdf>.
- Porto, D. eta Flores, J. (2012): *Periodismo transmedia*, Fragua, Madril.
- Pratten, R. (2011): *Getting started in transmedia storytelling. A practical guide for beginners*, <<http://www.slideshare.net/ZenFilms/getting-started-in-transmedia-storytelling?from=embed>> (Kontsulta: 2015-08-27).
- Ramirez de la piscina, T. (2004): *Ikus gaitzazuen bestelako komunikazioa: alternatiba kritikoak*, Alberdania, Irun.
- , (2010): «País Vasco, laboratorio de comunicación alternativa. Compilación de 30 años de experiencias», *Latina*, **95**, 310-324, <http://www.revistalatinacs.org/10/art2/902_Pais_Vasco/24_Ramirez.html>.
- Roig, A. (2010): «La participación como bien de consumo: una aproximación conceptual a las formas de implicación de los usuarios en proyectos audiovisuales colaborativos», *Anàlisi*, **40**, 101-114, <<http://www.analisi.cat/ojs/index.php/analisi/article/view/n40-roig>>.
- Scolari, C.A. (2013): *Narrativas transmedia. Cuando todos los medios cuentan*, Deusto, Bartzelona.

- Tilly, C. (2005): «Los movimientos sociales entran en el siglo veintiuno», *Política y sociedad*, **42(2)**, 11-35, <<http://revistas.ucm.es/index.php/POSO/article/viewFile/POSO0505230011A/22873>>.
- Zubiaga, M. (2014): *Libre Topaketak 0.1 ekimenean emandako hitzaldia*, <https://www.youtube.com/watch?v=6cf_TTOpOJc> (Kontsulta: 2015-08-27).

